



## **Iñigo Urkullu Renteria**

Alonsotegin (Bizkaia) jaioa 1961ean, ezkondua dago eta bi seme eta alaba bat ditu.

### **KARRERA PROFESIONALA**

Iñigo Urkullu Renteria Eusko Jaurlaritzaren lehendakaria da 2012ko abenduaren 15etik, egun horretan Gernikako Arbolapean bere karguaren zina egin zuen eta.

Iñigo Urkullu gaztetatik konprometitua egon da politikarekin. 2007tik eta 2012ra bitartean EAJko Euskadi Buru Batzarreko presidentea izan zen. Horren aurretik, Bizkaiko Buru Batzarreko buru izan zen (BBB) zortzi urtetan zehar.

Eusko Legebiltzarrean Bizkaiko legebiltzarkide gisa bete dituen lau legegintzaldietan (1994-2007), hainbat batzordetako kidea izan zen — esaterako, Hezkuntza eta Kultura Batzordekoa, Autogobernuari buruzko Batzorde Berezikoa edo Presazko Legegintza, Araudia eta Gobernuko Batzordekoa, besteak beste— eta hiru legegintzalditan zehar Giza Eskubideen Batzordeko presidentea izan da (1998-2008). Euskararen Aholku Batzordeko kidea ere izan zen (1994-2001); eta horren aurretik, EHUko Gizarte Kontseiluko kidea (1986-1989).

### **TREBAKUNTZA**

Urkullu lehendakaria prestakuntzaz irakaslea da. Magisteritza ikasi zuen Euskal Filologia espezialitatean, eta irakasle lanetan aritu zen Portugaleteko Asti-Leku Ikastolan eta Bilboko Félix Serrano ikastetxe publikoan, irakaskuntza publikoan bere lanpostua lortu ondoren.